

PASAIA

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

ITSAS FESTIBALA



©Maria Fernandez

pasaiahits-festibala

PASAIKO ITSAS ARRANTZA – Blas de Lezo LHII

Aurrematrikula: maiatzaren 6tik 24ra
Animatu!!!

OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

Marinos kalea, 2. 20110 Pasaia. Tel.: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net - www.pasaiaeskola.net



BLAS DE LEZO
ITSAS ARRANTZA BIK
ETXERAKO PROIEKTU



Hilaren 9ko 18:00etan sartuko dira badiaren ondare balioko duten ontzi tradizionalak. **Mendi Urruzuno / PASAIA ITSAS FESTIBALA**

Itsas ondarea, Txilerekin eta Batelerekin partekatua

Pasaia Itsas Festibalaren hirugarren ekitaldia hilaren 9an hasi, eta 12an bukatuko da. Ondare balioko dozenaka ontzi izango dira badiaren. Txile da ohorezko gonbidatua, eta Batelerek toki berezia izango dute.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Hilaren 9tik 12ra, datorren asteko ostegunetik igandera alegia, ondare balioko duten ontzi tradizionalen topagune izango da Pasaia. Pasaia Itsas Festibalaren hirugarren ekitaldia —aurreko biak

2018an eta 2022an egin ziren— jasoko du herriak, batez ere badiaren inguruak. Behar bezalako egitaraua prestatzen hila bete askoko lana egin dute Pasaia Udalak eta Albaola Itsas Kultur Faktoriak, itsas jaialdiaren antolatzaileak biak.

Nola ez, ondare diren ontziek izango

dute protagonismoa festibalean. Tamaina eta tankera guztietako dozenaka eta dozenaka ontzik emango diote kolorea badiari, eta horien osagarri, lurrean egingo diren ekitaldiak izango dira; aurtentzen, lehorreko jarduera horiek San Pedron eta Donibanen izango dira gehienbat, Antxon eta Trintxerpen egiten ari diren lanengatik.

Txile da Pasaia Itsas Festibalaren ohorezko gonbidatua. Hango itsas ondarea, musika, gastronomia eta oro har kultura ezagutzeko aukera izanen da jaialdiaren lau egunetan zehar. Gainera, herriko historia eta ondarea ardatzeko, aurtengoan Batelerek argi berezia izango dute. Egitaraua, baina, oso zabala da: tailerrak, erakusketak, bisita gidatuak, bertsozko saioak, haurrentzako jardue-

Gozatu Itsas Festibalarekin!

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Irunen eta Beran

943 63 45 36

aurkituko gaituzu

www.goieko.com



GRAYHOUND

CAWSAND, INGALATERRA, 2012

Hiru masta, 33 metroko luzera.

Izen bereko ontziaren erreplika da, 1776an Cawsanden (Cornualles, Erresuma Batua) eraikia. Frantzia eta Kanal uharte-
en artean kontra-
bandorako erabili zela uste da.



SARRERAK:



PHOENIX

DANIMARKA, 1929

Hiru mastako goleta, 34 metroko luzera.

Jatorrian, misio ebanjelikoe-
tarako goleta bezala erabili zen, bai-
na 1974an bergamin bihurtu zen.
Ridley Scott-en
1492, paradisuaren
konkista pelikulan
agertu zen .



SARRERAK:



LE BICHE

LORIENT, BRETAINIA, 1934

**Bi mastako ketxea, 21 metroko lu-
zera.**

Hegaluzearen arrantzarako
Atlantikoko azken beladun ontzia
izan zen. 22 urtez aritu zen horre-
tan. Egun gazte
eta adinekoentzat
itsa eskola antze-
koa da.



SARRERAK:



LA RECOUVRANCE

BREST, BRETAINIA, 1002

**Hiru mastako goleta, ia 42 metro-
ko luzerako.**

XIX. mendeko itsason-
tzi militar baten erreplika da. Jato-
rrian, posta garraiatzeko erabili zu-
ten. Brest hiriararen
ikurra da, eta Bre-
tainiako herriaren
enbaxadorea.



SARRERAK:

rak, hitzaldiak, erakustaldiak, azokak...
Denetik da. Orrialde berezi hauetan ikus
daitezke horiek guztiak.

Ontziak

Pasaia iritsiko diren dozenaka ontzi
horien artetik, hiruren barrualdera sar-
tzeko aukera izango da, eta beste bitan
badian zeharkaldiak egin ahal izango
dira, motorrik gabe, aske. Bisita daitez-
keenak *Grayhound*, *La Recouvrance* eta

Phoenix izango dira, eta badiako bidaiak
La Recouvrance-n nahiz *Le Biche*-n pres-
tatu dituzte. Testu honen ondoan daude
barku horien ezaugarriak. Lau ontziak
tamaina handikoak dira, eta horiek hur-
biletik ezagutzeko txartelak erosi behar
dira; erne, tiketak azkar batean agortzen
ari dira.

Iritsi da hirugarren Pasaia Itsas Festi-
bala. Herriaren itsa erroetara hurbiltze-
ko aukera ederra, hilaren 9tik 12ra. ✕



Pasai Donibane

Lezo Bide Kalea, 10 - Tel.: 943 34 60 07 - PASAI DONIBANE

Astelehenetik
larunbatera
8:30etik
20:30era.

Bertako ekoizleekin
konpromisoa

**Ongi etorri
Itsas
Festibalera!**

ELKARRIZKETA

« Pasaiak apustu egin du itsas ondarearen ezagutzan »

XABIER AGOTE PASAIA ITSAS FESTIBALEKO ZUZENDARIA

Hilaren 9tik 12ra Pasaia Itsas Festibalaren hirugarren ekitaldia ospatuko da, uretako eta lehorreko jarduerekin. Jaialdiaren zuzendariak egitasmoaren muinaren gaineko gogoeta egin du.

MIKEL DEL VAL

Pasaia Itsas Festibala gainean da. Gogotsu hirugarren ekitaldirako?

Gogotsu gaude, bai. Alde batetik, festibalaren bidez, Euskal Herriak duen itsas istorio handi hori eta bereziki Pasaiak duena ezagutarazten dugu. Eta, bestetik, azken hogeita bost urteetan Pasaiak

apustua egin du itsas ondarearen ezagutzaren alorrean, eta egindako lan hori ere ospatuko dugu.

Pasaia ontzigitza tradizionalaren nazioarteko agertoki eta hiriburu bilakatu-ko da. Zer suposatzen du horrek?

Hori mugarri handi bat da. Kultur ondareaz hitz egiten genuenean, ez zen itsas ondarea sartzen. Albaola ontzigitza


tradizionala berreskuratzeko asmoarekin lanean hasi zenean, aurrekaririk ez zegoenez, gizarteak ez zuen oso ondo ulertzen zertan zetzan gure lanak. Dagoeneko mende laurden bat aurrera egin dugunez, gaur egun nabaritzen dugu pertzepzio hori sozialki asko aldatu dela. Administrazioak ere badira urte batzuk ontzat eman duela itsas ondarea, ondare bezala. Gaur egun itsas ondarea ospatu ere egiten da, eta hona etortzen diren eragile eta itsasontziak hainbat lekutatik datoz. Ez dut ahaztu behar, gainera, Txile ohorezko gonbidatu bezala etorri dela aurten. Hilabete bat pasa da gure artean Txiletik etorritako bi ontzigitza dauzkagula, aita-emeak, Chiloe irlako txalupa bat eraikitzen ari direnak jendaurrean Albaolan. Txalupa hori festibalean uretaratuko da.

Txile da aurtengo ohorezko gonbidatua. Zergatik hautatu duzue herrialde hori?

Duela zazpi urte Txileko Concepcion Unibertsitatetik gonbidatu ninduten Albaolako eredu han ezagutarazteko. Hitzaldi batzuk eman nituen, eta haiek han zer egiten den erakutsi zidaten. Horren bidez, aukera izan nuen Txileko itsas ondarearen eragile asko ezagutzeko eta harreman bat sortzeko. Oso interesgarria iruditu zitzaidan Chiloe aldean arlo honetan duten proiektua. Han, gobernutik erabaki dute itsas ondareari astindu eder bat ematea. Hori dela eta, oso interesgarria iruditu zitzaigun beraien esperientzia hori hona ekartzea.

Txilen nengoela, gainera, txiletarrek izugarri estimatzen zuten pertsonaia bat zutela kontatu zidaten: Jose Moraleda. Haiek uste zuten nik ezagutuko nuela, haietzako erreferentziazko pertsonaia delako. Moraleda San Pedron jaio zen, eta Txileko Kanal Patagonikoa eta Chiloe irlako kostalde guztia zehaztasunez kartografiatu zituen aurrena izan zen. Sekulako ekarpena egin zion XVIII. mendeko kartografiari. Nik ez nuen bere berri, eta San Pedron ere ez zuen inork ezagutzen, baina Txilen oso ezaguna da.

Oso harrigarria da, baita ere, San Martin izeneko fragata bat zegoela, Pasaian eraiki zena XVIII. mendean, eta Txileko kostan hondoratu zena. Duela urte batzuk, Txileko unibertsitate batek iker-



keta arkeologiko sakona egin zuen itsasontzi horren inguruan, eta oso informazio interesgarria eman zuten. Ekarpen handia egin dute, eta ikusi dugu aurrerapen teknologiko asko erakusten dituela itsasontzi pasaitar horrek.

Batelerak ere protagonista izango dira festibalean. Zergatik?

Pasaiaren itsas lana izugarri interesgarria da, eta beste lekuetan ez zeuden dinamika batzuk bereizi izan dira hemen. Hor Bateleren ekarpena goraiatu behar genuke. Gaur egun, San Juandik San Pedrora joateko ez dugu zubirik, motora hartzen dugu alde batetik bestera pasatzeko. Iraganean, bateletan zeharkatzen zen, eta Pasaiak zuen ezaugarrietako bat zen emakumeek egiten zutela lan hori. Beste leku batzuetan gizonen egitekoa izaten zen Batelerena, baina hemen emakumeek egiten zuten lan hori. Horren arrazoia da gizonak itsasoz zeudela beti. Gizonak ontziratzen zirenean hamar hilabete edo gehiago pasatzen zituzten itsasoan. Hemen gizon gutxi zeuden, eta lan hori emakumeek egiten zuten naturaltasunez. Oso egokia iruditu zaigu Pasaiako Batelerak Elkar-tearen lana goraiatzea eta omentzea.

Aipatu duzue Pasaiako Itsas Festibala jaialdi soil bat baino gehiago dela. Zergatik?

Gure festibalean bi giro daude: itsasokoa eta lehorrekkoa. Lehorreko giro hori itsasokoarekin uztartzen da, eta hori ezohikoa da. Horrez gain, ez da erraza horrenbeste itsasontzi erakartzea. Guregana datozenak ilusio handiarekin datoz, beraien itsas kulturaren adierazle bezala, harrotasun handiz erakusteko nolako



HITZA

zen beraien itsas iragana. Asko ere Albalari erantzuteko datoz. Badira urte asko Oarsoaldea Garapen Agentziaren eta Pasaiako Udalaren laguntzarekin Euskal Herria ezagutarazten dugula. Gu kanpora joan izan garenean, aukera izan dugu beste festibalak nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten ikusteko, eta bertako itsas kultur eragileak ezagutzeko. Beti estimatu izan dute gure parte hartzea, eta haiek ere hona datoz gurekin bat egitera. Itsas festibalen arteko elkartasun bat sortu da, eta horretan datza festibalaren alde konplexuak, ez baita erraza horrenbeste itsasontzi mobilizatzea. Ehun itsasontzi baino gehiagok eman dute izena aurtan.

Eragile eta elkarten babes eta lankidetzaren eraketa dituzue. Garrantzitsuak dira egitarauaren egituraketan?

Bai, oso. Aurreko edizioetan bezala, Pasaiako eta inguruko boluntario pila bat etorriko dira laguntzera, eta haien laguntza ezinbestekoa da. Bertako elkarte askok ere bat egiten dute festibalarekin. Gure asmoa da festa bat izatea non gizarteak barneratzen duen Pasaiak izan duen handitasun hori. Kulturaren alorretik gure ekarpena egin nahi dugu, kulturaren bidetik eta itsas ondarearen berreskurapenarekin pizkunde sozial bat lortzeko. Itsas ondarearen berreskurapena gure gizar-tearen harrotasunerako tresna bat izatea nahi dugu. X

Pasaia

Oinarrizko Lanbide Heziketa



OLHUI | IMFPB

DBHko Graduatua 

Sukaldaritza eta Jatetxe-arloa 

2024/25 IKASTURTEA

Aurrematrikulazio epea: Maiatzak 6-24

Jarri zaitez kontaktuan gurekin!

Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe. Pasaia.

943 40 48 94 www.fpb-olh.pasaia.org olh-fpb@pasaia.net



Etxebizitza Mantentze-Lanak
(Iturgintza - Beroa)



 PASAIKO UDALA

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Hugo Almonacid eta Hugo Almonacid aita- semeak, Albaolan. **A. Mendizabal**

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Nolatan gurutzatu duzue mundua Pasaian belaontzi bat eraikitzeko?

Calbucokoak gara, Txileko Los Lagos eskualdean dago, eta bertan eraikitzen ditugu gure ontziak. Nire aitak urte asko daramatza zeregin horretan, bizitza osoa. Haren aitarengandik ikasi zuen, nik neuk egin bezala. Txileko Kultura Ministerioaren Ondare Zerbitzuak gonbidatu gintuen hona etortzera. Erriberako zurgintza balioan jartzeko lan egin izan dugu, besteak beste.

Pasaian eraikitzen ari garen hau da horietako bat. Belaontzi bat da, chilote optimizatu bat zehazki. Daniel Bravok sortutako proiektua da, Txile hegoaldeko herritarrak bela bidezko nabigazioaz maitemintzea helburu duena. Chiloe artxipielagoko ontzi tradizionala da. Bere garaian merkantziak garraiatzeko erabiltzen zen. Oso handiak eta zabalak ziren,

«Ontzi hau uretaratzea mugarri bat izango da guretzako»

HUGO ALMONACID ONTZIGILEA

Almonacid aita-seme txiletarrak belaontzi bat eraikitzen ari dira Albaolan. Beren sorterrian egiten duten lana badian erakutsiko dute hilaren 10ean. Ohorezko gonbidatu da Txile.

eta egun jendearentzat ez dira oso erakargarriak, nabigatzeko zabalegiak iruditzen zaizkiolako. Aldaketa txiki batzuen bidez chilote erakargarriagoa egi- tea da lortu nahi duguna.

Hilabete daramazue belaontzia eraikitzen, eta datorren asterako, Pasaia Itsas Festibalerako, prest egon behar du.

Bai, denbora errekorrean ari gara eraikitzen [barrez]. Ontzi honek bost metroko luzera du. Duela hilabete hasi ginen, eta azken txanpan sartu gara dagoeneko. Helburua da hilaren 7-8rako prest egotea, belak eta guzti. Horiek Wienecke enpresak utziko dizkigu dohaintzan.

Nolakoa ari da izaten prozesua?

Izugarria. Albaolan dauden baldintzak bikainak dira. Txilen dugun lekuarekin alderatzen badugu, hango zurginen baldintzak oso prekarioak dira. Horregatik sortu genuen sektoreko zurginen elkar- tea. Bertako presidentea naiz. Irabazi as- morik gabeko elkar- tea da, ofizioa indar- tzea eta langileen lan baldintzak hobet- ztea asmo duena. Haatik, esperientzia bikaina ari da izaten. Tresnetatik harago, hemen itsas ondareari ematen zaion ga- rrantzia ikusteak pozez bete nau.

Hilaren 10ean itsasoratuko duzue. Mo- mentu hori nola biziko duzue?

Oraindik lasai gaude, baina ueña heltzen denean urduriago egongo garela uste dut, jende asko etortzen dela esan baiti- gute. Ontzia uretaratzea mugarri bat izango da guretzat eta erriberako zurgin- tzarentzat. Gainera, hau guztia aitarekin bizi ahal izatea zoragarria da. Egiten du- gun lana erakutsi nahi dugu, eta Euskal Herria leku ezin hobea da horretarako. ✕

amua
PASAI DONIBANE · arropa denda

f amuapasaidonibane

rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

holkularitza asesor

| Fiskala | Kontabilitatea | Lana
| Aseguroak | Finken Administrazioa

**MAKAILO
ETXARRI**

MAKAILO ETXARRI S.L.
Lezo Bide 17/19
PASAI DONIBANE

comercial@makailoetxarri.com
Tel.: 943 51 00 75



lazko edizioko irudi honetan, Batelerak, 'Ameriketatik' ontzian. **Mendi Urruzuno**

Ezinbesteko izan zirelako, protagonista izango dira

Hiru mende luzez Pasaiaiko portua bizirik mantendu zuten Batelerak merezitako aitortza jasoko dute aurtengo jaialdian. Ontzien baimenarekin, protagonista nagusiak izango dira.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

XVII. mendetik XX. mendera bitarte Pasaiaiko portuaren funtzionamenduan ezinbesteko izan ziren emakumeak oso presente izango ditu aurtengo Pasaia Itsas Festibalak. Pasaiaiko Batelerak protagonista nagusiak izango dira, merezitako aitortza egingo baitie hirugarren festibalak. Hiru mende luzez aritu ziren bezala ariko dira egunotan herriko emakume asko, dantzan zein arraunean, jan-

tzi, zapi eta zapel eder horiek soinean dituztelarik. Batelerak «zer ziren eta nor garen» erakutsiko dutela aurreratu dute Pasaiaiko Batelerak taldeko emakumeek.

Osteguna heltzeko irrikaz dira, harrean dantzaldia eskainiko baitute Batelerak San Pedron. Aurretik, Donibanen ariko dira dantzan. Ostiralean uretan zein lehorrean ibiliko dira, batel txiki batekin badian eta dantzan Donibanen. Larunbat arratsaldean ere une berezi eta ederra biziko dute Batelerak, Antxon egingo duten bertso saiko bertsolariak

eramango baitituzte arraunean Mareal-taraino, «garai batean bezalaxe». Ameriketatik trainerua ere uretaratuko dute, igande goizean izango da hori. Arratsaldean, berriz, Trintxerpeko danborrada-ekin batera ariko dira dantzan, San Pedroraino eta buelta.

Albaola Itsas Kultur Faktoriako presidente Xabier Agotek «Bateleren amets honekin oso pozik» dagoela aitortu du: «Batelerek askoz gehiago merezi dute, gutxienez gure aletxoak jartzen saiatzen gara, gure itsas historian Bateleren papera argitzeko bide bat irekiz. Pasaian, emakumeek oso paper nabarmena izan dute beti portuko jardueretan, eta nolabait, itsas historiaren zati hori nabarmentzeko unea da». Teo Alberro alkateak ere Pasaiaiko Batelerak elkarteko ki-deak eskertu nahi izan ditu, «antzinako ofizio honen oroimena zaintzen eta zabaltzen egindako lan nekaezinagatik».

Ipuin eta guzti

Aitortza eta omenaldi hori biribiltzeko, Nerea Intxausti pasaitarraren *Tere Batelera* haurrentzako ipuina jarriko dute salgai jaialdiko egunetan. Idazlearen arabera, «duela mende batzuk badia honetan gertatzen zenari ahotsa emateko» baliatu nahi izan du argitalpena, eta ipuinak batelerak «harrotasun osoz» ordezkatzeko dituzten emakumeei balioa eman nahi diela. Informazio gune guztietan erosi ahal izango da Intxaustiren sorkuntza.

Bateleren inguruko elkarrizketa eta erreportaje bana argitaratu berri ditu HITZA-k oarsoldea.hitza.eus-en. ✕

itsastresnak
ERCIBENGOA

JOTUN

Nabalaldea, A 2b.
PASAI DONIBANE.
Tel.: 943 390436
943 394532

TOTAL

- Haur eta helduentzat
Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta
familia terapia

JAKOBE
PSIKOTERAPIA
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

TXULOTXO

943 52 39 52
679 31 73 40
Donibane kalea, 71.
PASAI DONIBANE

EGITARUA

JARDUERA IRAUNKORRAK

Hilaren 10etik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, San Pedroko kaian ainguratuta izango den *Aita Mari* ontzia bisitatzeko aukera.

Hilaren 10etik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, San Pedroko kaian ainguratuta izango den *Mater* Ontzi Museo Ekoaktiboa bisitatzeko aukera.

Hilaren 9tik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, San Pedroko Lonjako plazan, *Guipuzcoa* ontzi zaharberritua ikusteko aukera.

Hilaren 9tik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, San Pedroko Lonjaren sarreran, *Hondoratzen memoria* erakusketa ikusteko aukera.

Hilaren 19tik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, San Pedroko Lonjan, artisaunen azoka bisitatzeko aukera.

Hilaren 9tik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, San Pedroko Lonjako plazan, elkarteen eta ondaren eragileen postuak bisitatzeko aukera.

Hilaren 10etik 12ra. 11:00etatik 20:00etara, Albaolan, itsasoarekin loturako lanbideen erakustaldiak.

Hilaren 10etik 12ra. 11:00-14:00 eta 16:00-20:00 tartetean, Donibaneko Bizkaia plazan, Akromasta jarduera: 8 metroko altuera duen masta batera igozteko aukera.

HILAK 7, ASTEARTEA

18:00. Albaolan, Itsasontzi tradizionalen eraikuntza Hego Amerikako mugetan solasaldia. Hizlaria: Marco Antonio Tamayo Quilodran.

HILAK 8, ASTEAZKENA

18:00. Orioko Mutiozabalen, *Tradizioaren eta berrikuntzaren arteko esperientzia konstruktiboak* hitzaldia. Hizlariak: Daniel Bravo Silva, Hugo Almoacid eta Hugo Almoacid aita-semeak, Oscar Fuertes Dopico, eta Lago Fernandez.

HILAK 9, OSTEKUNA

18:00. 2024ko Pasaia Itsas Festibalaren

hasiera ofiziala itsasontzien sarrerarekin.



17:30 (San Pedron) eta 19:30 (Donibanen). Mogumbo taldearen kalejira ibiltaria.

HILAK 10, OSTIRALA

Goizean zehar. Ikastetxeetako ikasleentzat jarduerak Porrotx pailazoaren laguntzarekin.

16:00. San Pedron zehar, *Itsaso eta pertsonen zaindari martxa*, Adinkiderena eta Batukada Feminista Sarearen batu-kadekin.

17:00. Donibaneko Santiago plazan, Txileko musika tradizionala.

19:00. Albaolan, Txileko ontzigileek egin duten belaontzi txiletarra uretara-tuko dute.

19:00. San Pedroko Lonjako plazan, Alargun Beltzak taldearen kontzertua.

19:30. Donibaneko Bizkaia plazan, Tarpia eta Leturiaren kontzertua.

22:00. Donibaneko Bizkaia plazan, Calle Mogambo (Txile) taldearen emanaldia.

HILAK 11, LARUNBATA

Herritik zehar. Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga trikitilarien kalejira.

10:00, 11:30, eta 13:00etan. San Pedroko Lonjara bisita gidatuak. Sarrerren erreserba egin behar da *pasaiaitsasfestibala.org* webgunean.



Goizean zehar. Izan Arrantzale 6-12 adin tartekoentzat tailerrak Donibane-ko Bonantzán. 10:00etan, itsas eskulana; 11:30ean, itsas esperimenduak; eta 12:30ean arrantza tailerra.

11:30, 13:30, 17:30 eta 19:30ean. Donibane-ko Bizkaia plazan, baxurako produktuen dastaketa eta uztarketa. Sarrerren erreserba egin behar da pasaiaitsasfestibala.org webgunean.

11:00-14:00. San Pedroko Lonjako plazan, saregileen erakustaldia.

11:00, 12:00 eta 13:00etan. Trintxerpeko kaian dagoen AZTIren egoitzan, Pasaia-ko Polo Urdinera bisita gidatuak. Sarrerren erreserba egin behar da pasaiaitsasfestibala.org webgunean.

11:00etan eta 16:00etan. Donibane-ko Bizkaia plazan, urpekaritzako bataioak. Sarrerren erreserba egin behar da pasaiaitsasfestibala.org webgunean.

12:00. Donibane-ko zehar, Oiazungo Herri Musikaren Txokoko kideen kalebuelta.

12:00 (San Pedron) eta 13:30 (Donibanen). Kukai Dantzaren eta Euskorle-ans taldearen ikuskizuna San Pedro-ko Lonjako plazan, eta Donibane-ko Bizkaia

plazan. Bien tartean kalejira egingo dute.

12:00. Badian, Donibane aldean, haurren eta kadeteen batelen estropada mistoa.

12:00. Arando Txiki abesbatzaren kalejira hasiko da, San Pedron eta Trintxerpen izango dira.

12:30. Kilika txotxongilo handien taldeak kalejira hasiko du heritik.

13:30ean izango dira San Pedroko Lonjako plazan, eta 19:00etan Donibane-ko Bizkaia plazan.

16:30. Antxoko Molinao errekan, *Denboraren tunelean* bertso jaialdia.



19:00. Trintxerpeko Gudarien Plazan, Haatik Dantza Konpainiaren *Ur* ikuskizuna.

19:30. San Pedroko Lonjako plazan, Anna Colomen kontzertua.

22:00. San Pedroko Lonjako plazan, Ana Tijouxen (Txile) kontzertua.

HILAK 12, IGANDEA

Herritik zehar. Eingo trikitixa taldean kalebuelta Juanita Laran-
do erraldoiarekin.

11:00. Donibane-ko Bizkaia plazan, urpekaritzako bataioak. Sarrerren erreserba egin behar da pasaiaitsasfestibala.org webgunean.

11:30ean eta 16:00etan. Donibane-ko Bizkaia plazan, Aranzadiren eskutik astronomia tailerrak 6-12 adin tartekoentzat, Parte hartzeko ezinbestekoa da tailerraren aterki berezia: erosketa hori pasaiaitsasfestibala.org webgunean egin behar da.

12:00. San Pedroko Lonjako plazan,

Illunbe Akordeoi Orkestraren emanaldia.

12:00. Donibane-ko zehar, kantu jira.

13:15. San Pedroko Lonjako plazan, Noir Socha taldearen kontzertua.

13:30. Donibane-ko Bizkaia plazan, mutxikoak.

16:30. San Pedroko Lonjako plazan, Erromintxelak taldearen kontzertua.



17:00. Trintxerpe eta San Pedro artean, itsas danborrada.

17:30. San Pedroko Lonjako plazan, Txileko musika tradizionala.

18:00. Donibane-ko Bizkaia plazan, *Zanga handia* dantza ikuskizuna, dantzari pasaitarrekin.

OHARRAK

Nola mugitu festibalean? Aukerarik onena motora da. Ohiko zerbitzuaz gain (San Pedro-Donibane, Mugirekin), beste bi zerbitzu berezi izango dira festibala bitartean: Trintxerpe (Hospitalilloa)-Donibane (Bizkaia plaza) eta Donibane (Bizkaia plaza)-San Pedro. Linea bereziren prezioa euro batekoa da.

Garraio publikoa. Ekialdebusek, Euskotrenek eta Renfek zerbitzu bereziak jarriko dituzte jaialdia bitartean. Horien berri izateko joan Pasaia Itsas Festibalaren webgunera.





PASAIA

ITSAS FESTIBALA

9-12 Mai
May 2024

OHOREZKO GONBIDATUA **CHILE**

pasaiaitsasfestibala.org

Babesleak:



Sustatzaileak:

